

# Aiaraldea

Eskualdeko bertso bilduma

2015-2016 ikasturtea

---

## Proiektuaren sustatzaileak

Amurrioko Udala  
Amurrioko ikastetxeak  
Urduñako Udala  
Aiarako Udala  
Laudioko Udala  
Artziniegako Udala

## AURKIBIDEA

3. orrialdea .....	La Milagrosa ikastetxea- Laudio -	5.A
4. orrialdea .....	La Milagrosa ikastetxea- Laudio -	5.B
5. orrialdea .....	La Milagrosa ikastetxea- Laudio -	6.A
6. orrialdea .....	La Milagrosa ikastetxea- Laudio -	6.B
7. orrialdea .....	Fabian Legorburu ikastetxea- Laudio -	5.maila
8. orrialdea .....	Fabian Legorburu ikastetxea- Laudio -	6.maila
9. orrialdea .....	Lamuza ikastetxea- Laudio -	5.maila
10. orrialdea.....	Lamuza ikastetxea- Laudio -	6.maila
11. orrialdea.....	Lateorro ikastetxea- Laudio -	5.B
12. orrialdea.....	Lateorro ikastetxea- Laudio -	5.D
13. orrialdea.....	Lateorro ikastetxea- Laudio -	6.B
14. orrialdea.....	Lateorro ikastetxea- Laudio -	6.D1
15. orrialdea.....	Lateorro ikastetxea- Laudio -	6.D2
16. orrialdea.....	Laudio Ikastola- Laudio -	5.A
17. orrialdea.....	Laudio Ikastola- Laudio -	5.B
18. orrialdea.....	Laudio Ikastola- Laudio -	6.A
19. orrialdea.....	Laudio Ikastola- Laudio -	6.B
20. orrialdea.....	Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Berdeak	
21. orrialdea.....	Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Horiak	
22. orrialdea.....	Lukas Rey ikastetxea – Amurrio –	5.A
23. orrialdea.....	Lukas Rey ikastetxea – Amurrio –	5.A
24. orrialdea.....	Lukas Rey ikastetxea – Amurrio –	6.A
25. orrialdea.....	Lukas Rey ikastetxea – Amurrio –	6.B
26. orrialdea.....	Zabaleko ikastetxea – Amurrio –	5. eta 6. maila
27. orrialdea.....	Virgen Niña ikastetxea – Amurrio –	5.maila
28. orrialdea.....	Virgen Niña ikastetxea – Amurrio –	6.maila
29. orrialdea.....	Aresketa Ikastola – Amurrio –	6.A
30. orrialdea.....	Aresketa Ikastola – Amurrio –	6.B
31. orrialdea.....	Aresketa Ikastola – Amurrio –	1. DBH.A
32. orrialdea.....	Aresketa Ikastola – Amurrio –	1. DBH.B
33. orrialdea.....	Zaraobe institutua – Amurrio –	2.D
34. orrialdea.....	Zaraobe institutua – Amurrio –	2.E
35. orrialdea.....	Zaraobe institutua – Amurrio –	2.F
36. orrialdea.....	Zaraobe institutua – Amurrio –	2.G
37. orrialdea.....	Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega -	5.maila
38. orrialdea.....	Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega -	6.maila
39. orrialdea.....	Urduña Herri Eskola – Urduña-	5. maila
40. orrialdea.....	Urduña Herri Eskola – Urduña-	6. maila
41. orrialdea.....	Antzinako Andra Mari ikastetxea- Urduña -	5.A
42. orrialdea.....	Antzinako Andra Mari ikastetxea- Urduña -	5.B
43. orrialdea.....	Antzinako Andra Mari ikastetxea- Urduña -	6. maila

## Bertso-eskolak

44. orrialdea.....	Eskualdeko bertso-eskolak
--------------------	---------------------------



### La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.A

La Milagrosakoa  
Da gure taldea  
Laudion ikasten dugu  
Zelako zortea  
5. mailan gaude  
Poz pozik jendea  
Asko gustatzen zaigu  
Patiora joatea

Laudion bizi gara gu  
Jolasten dugu bai  
Lagunekin batera  
Hori bai dela guai  
10 urte ditugu  
Denak oso alai  
Ondo pasatzen dugu  
Eskolan ere jai

Ondo pasatzen dugu  
Klasekideekin  
Poz pozik gaude beti  
Gure lagunekin  
Asko aspertzen gara  
Etxeko lanekin  
Horregatik nahi dugu  
Egon besteekin

5.mailan gaude  
Guztiok ikasten  
Etxean geratzea  
Ikasgai ona zen  
10 urte ditugu  
11 betetzen  
Ikastetxean gaude  
Bertsoak abesten

10 urte ditugu  
Laudioarrak gara  
eskolan aspertuta  
Hobeto plazara  
5. mailan gaude  
Poz pozik gelara  
La Mila basket juniors  
Zelako pasada

Gu 'animals' garela  
Esaten dugu bai  
Animali guztiak  
Guretzat dira guai  
Eskolan aspertuta  
Ez gaude oso alai  
Athletikoak gara  
Beti gaude lasai



### La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.B

Hemen gaude guztiok  
Eskolan ikasten  
Gero patiora goaz  
Guztiok jolasten  
Andereño etortzean  
Gu gaude abesten  
Andereño joatean  
Zarata egiten

Laudiokoak gara gu  
Hemen guztiok bai  
Oso politak gara  
Beti gaude alai  
10 urte ditugu  
Hemen guztiok guai  
Lagunekin batera  
Egiten dugu jai

Oso bihurriak gara  
La Mila eskolan  
Eta gure klasean  
Egiten dugu lan  
Gelan aspertzen gara  
Lehenengo orduan  
Bukatzeko gogoak  
Euskara klasean

La Milagrosakoak  
Gu gara onenak  
Asko jolasten dugu  
Asperten garenak  
Jolastoki handiak  
Klaseak txikiak  
Barnetegi onenak  
Egin ditugunak

Gu bihurriak gara  
Ta beti jolasten  
Ere abesten dugu  
Musika entzuten  
Jolastoki orduan  
Ez dugu ikasten  
Oporrak onak dira  
Laburrak izaten

La Mila onena da  
Eta gu ere bai  
5. mailan gaude  
Gure klasea guai  
Bertsoak egitean  
Beti gaude alai  
Talde honeta beti  
Gaude oso lasai



### La Milagrosa ikastetxea—Laudio 6.A

Kaixo lagunak Japonian gaude  
Tokioko gauzak ikusten  
Atrakzio parke handi batean  
Gaude oso ondo pasatzen  
Japonian ez daude hondartza asko  
Baina ez du inportatzen  
Gu sedetan eta dendetan  
Yen mordo gaude gastatzen  
Hemen bizitzen egongo gara  
Japoniarra garatzen

Kaixo La Mila nola zaudete  
Gu hemen ondo pasatzen  
Orain postala idatzi dugu  
Hondartzetan surf egiten  
Neoprenoa jantzita dugu  
Lakers partidua ikusten  
Ta Universal produkzioan  
Oscar sariak banatzen  
Agur La Mila orain bagoaz  
Miami Beach-en bainatzen

Kaixo podemos nola zaudete  
Gu gaur Atlantidan gaude  
Hemen ez dago inposturik ta  
Ze ondo gaude zu gabe  
Pozima batzuk hartu ditugu  
Algak ta loreak ere  
Ariel ta Flanders ikusi dugu  
Inbidiarik ez hobe  
Ta orain agur esango dugu  
Egingo bai dugu alde

Kaixo koadrilla New Yorken gaude  
Estatuatik botatzen  
Ta Texas-era joango gara  
Zaldi gainean ibiltzen  
Las Vegaseko kasinoetan  
Diru guztia gastatzen  
Kaliforniako mendira igo  
Ta hasi gara oihukatzen  
Agur lagunak hementxe gaude  
Benetan ondo pasatzen

Kaixo lagunak Miamin gaude  
Bero handia pasatzen  
Hotel lujoso batean gaude  
Asko asko dibertitzen  
Leire ta Nere shopping egiten  
Aimar hondartzan dantzatzen  
Borja akuagym egiten dago  
Leire ta Aimar mozorrotzen  
Nere igeritan gelditu Gabe  
Orain etxera goazen

Iepa lagunok Noruegan gaude  
Hotza handia pasatzen  
Snowboard asko egiten dugu  
Fiordo batzuk ikusten  
Rubius ikusi nahi dute haiek  
Ta Nagore deskantsatzen  
Elur aingeru batzuk eginda  
Ta iglú barruan sartzen  
Agur lagunok ondo pasatu  
Oso ondo gaude hemen



### La Milagrosa ikastetxea—Laudio 6.B

Eskolako onenak  
Bertsoak egiten  
Denok ikasten dugu  
Primeran pasatzen  
Ikasi eta ikasi  
Eskolan pentsatzen  
Eskolako lagunak  
Guztiak jolasten

Oso gaiztoak gara  
Gezurriak ere bai  
Barrezka ta barrezka  
Denak beti alai  
Eskolako txarrenak  
Baina ere oso guai  
Errebeldeak gara  
Batzuetan lasai

Guri gustatzen zaigu  
Kirola egitea  
Futbola onena da  
Ere dantzatzea  
Barnetegi onena  
Nahi dugu izatea  
Gure helburua da  
Ondo pasatzea

La Milagrosan gaude  
Hemen birpasatzen  
Lagunekin jolasten  
Kontrolak gainditzen  
Jolastoki orduan  
Futbolan aritzen  
Ordenagailuekin  
Inglesa ikasten

La Milagrokoak  
Hoberenak gara  
Eta gaiztoak noski  
Zelako pasada  
Matematikak txarrak  
Aspergarria da  
Klasea bukatuta  
Bagoaz plazara

Hamaika urte ditugu  
Ia denok hemen  
Beti egoten gara  
Zarata egiten  
Etxeko lanak beti  
Gehiegi bidaltzen  
Txirrina jo ta gero  
Etxera joaten



### Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio 5. maila

Aretakoak gara  
Eskola onena  
Bertsoekin abestu  
Bai dela guaiena

Aretako herrian  
Denetarik dago  
Futbol zelai bat eta  
Golak sartzen nago

Patio oso handia  
Jolasteko asko  
Txintxoak gara beti  
Lanak egiteko

Fabian Legorburuko  
Ikasleak gara  
Aretan dago eskola  
Etorri behar zara

5. mailan gaude  
Talde hoberena  
Etxeko lanak asko  
Hori bai kondena

Gure irakasleak  
Garaitz du izena  
Eta oso majua  
Guretzat onena

Andereño majuak  
Baditugu gelan  
Kexatzen gara baina  
Egiten dugu lan



### **Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio 6. maila**


Aretakoak gara  
 Herririk onena  
 Gure ikastetxea  
 Da ezagunena  
 Areta ez da handia  
 Ezta txikiena  
 Oso majuak gara  
 Talde jatorrena

Aretakoak gara  
 Hoberenak ere  
 6. mailakoak  
 Eskolako trebe  
 Betirako lagunak  
 Elkarrekin gaude  
 Denok kanpora goaz  
 Beldur izan Gabe

Aretakoak gara  
 Eta hoberenak  
 Neska mutil guztiak  
 Gara jatorrenak  
 Ez gara Laudiokoak  
 Gara guapoena  
 Eta gure bertsoak  
 Dira politenak

Aretan bizi gara  
 Pilotan txarrenak  
 Gu beti alaitsuak  
 Ikasten onenak  
 Eskolan nagusiak  
 Agintzen dutenak  
 Gure bertsoak dira  
 Koloretsuenak





### Lamuza ikastetxea - Laudio 5. maila

Egunero ikasten  
Inguru zailena  
Unairekin bertsoak  
Ikasten onena

Bostgarren mailakoak  
Lamuza eskola  
Andereño majua  
Irakasle ona

Oso onak garela  
Zintzoak ere bai  
Plastikako orduan  
Pasatzen oso guai

Ingurune txarrena  
Ta mate ere bai  
Euskaraz hitz egiten  
Inglesa ez da guai

AEO onena da  
Bertsoak ere bai  
unairekin ikasten  
abestiak alai



### Lamuza ikastetxea - Audio 6. maila

Lamuza eskolan gaude  
Laudioko herrian  
12 urte ditugu  
Eskolan lanean  
Seigarren mailan gaude  
Ikasteko gelan  
Euskaraz hitz egiten  
Egiten dugu lan

Kaixo mundo polita  
Lamuzan abesten  
Munduko onenak gara  
Zarata egiten  
24 klasean  
Pixka bat ikasten  
Txirrina jo ta gero  
Berriro jolasten

Eskola honetan gaude  
Jende asko hemen  
Patioan jolastu  
Eta dibertitzen  
11 urte ditugu  
12 kunplitzen  
Gu Laudion bizi gara  
Herrialde baten

Laudiotik gatoz denok  
Bertsoak abesten  
Lamuza eskolan gaude  
Bertsoak asmatzen  
Dibertigarri gara  
Patioan jolasten  
Lagunekin batera  
Primeran pasatzen



### Lateorro ikastetxea—Laudio 5.D

Laudion bizi gara gu  
Bosgarren D gelan  
10 urte ditugu  
D-ko ereduari  
Oso pozik gaudela  
Lagunen artean  
Berritsuak garela  
Gu beti klasean

Gu Lateorron gaude  
Laudioko eskolan  
Ondo pasatzen dugu  
Lagunekin gelan  
Oso gustoko dugu  
Jolastu patioan  
Material asko dugu  
Gure estutxean

Gu laudioarrak gara  
11 urterekin  
5. mailan gaude  
Gure lagunekin  
Asko aspertzen gara  
Etxeko lanekin  
Oporrak hartu eta  
Poz handiarekin

Euskaldunak garenez  
Euskaraz dakigu  
Lateoroko eskolan  
Guk ikasten dugu  
5. mailakoak  
10 urte inguru  
Guri gustatzen zaigu  
Gimnasia seguru



### Lateorro ikastetxea—Laudio 5.B

Laudiokoak gara gu  
Hamar urterekin  
5. B klasean  
Gure lagunekin  
Lateorro eskolan  
Etxeko lanekin  
Aspergarriak dira  
Baina behar egin

Laudioko umeak gara  
Lateorrokoak  
Hamar urte ditugu  
Umetxo txintxoak  
5. B klasean  
Ume azkarrenak  
Denok onenak gara  
Eta jatorrenak

Laudiokoak gara bai  
Ume lasaiak gu  
Futboleko taldean  
Onenak ditugu  
Korrika egitean  
Hamar urte dugu  
Beti irabaztea  
Hau gure helburu

Lateorro eskolako  
Ikasle onenak  
Beti ondo pasatzen  
Ikasle azkarrenak  
Egun osoa pozik  
Pasatzen dutenak  
Erlojuari begira  
Ordu luzeenak



### Lateorro ikastetxea—Laudio 6.B

Agur Lateorrori  
Bagoaz kanpora  
Hurrengo urtean goaz  
Laudio institutura  
Lehenengo hezkuntzatik  
Seigarren mailara  
Ondo pasatu dugu  
Guztiok gustora

Agur gure eskola  
Zoragarria da  
Ondo pasatu dugu  
Lagunekin bada  
Irakasleak onak  
Beti eskolara  
Institutura goaz  
Jolasten patiora

Laudiokoak gara gu  
Beti hoberenak  
Ondo pasatzen dugu  
Betiko lagunak  
Jolastokian gaude  
Abesten bertsoak  
Amaitu eta gero  
Dantzatzen guztiak

Lateorroko eskolan  
Urte asko pasatzen  
Txikitatik guztiok  
Elkarrekin hemen  
Lagun asko eginda  
Beti bai jolasten  
Orain hemendik goaz  
Pila bat jakiten



### Lateorro ikastetxea—Laudio 6.D 1

Lateorrotik bagoaz  
Lagun berriekin  
Laudioko institutura  
Iribar batekin  
Hamar urte pasatu  
Ditugu elkarrekin  
Agur esaten dugu  
Gure bertsoekin

Kaixo Lateorro eskola  
Hemen lagunekin  
6. mailakoak  
Beti elkarrekin  
Bizitza osoa hemen  
Maitasunarekin  
Institutura goaz  
Lagun berriekin

Eskertzen dugu denok  
Hemen egotea  
Asko gustatu zaigu  
Denok jolastea  
Barrezka ta barrezka  
6 d 1 klasea  
Lateorro eskola  
Beti gure etxea

Agur lateorro eskola  
Kontrolak egiten  
Bederatzi urtez gu  
Lateorron ikasten  
Kaixo institutoa  
Oporrak gozaten  
Oporrak eta gero  
Berrito ikasten



### Lateorro ikastetxea—Laudio 6.D 2

Lateorron egon gara  
 Bizitza osoan  
 Eta orain bagoaz  
 Denok jolasean  
 Ez goaz oso pozik  
 Goaz negarretan  
 Gehiago ikasi behar  
 Hurrengo eskolan

Bi urtetik honaino  
 Hemen egon gara  
 ondo pasatu dugu  
 Ikasten euskara  
 Institutura goaz  
 Gehiago ikastera  
 Hau da azken urtea  
 Gaudela batera

Lateorrokoak gara  
 Bagaude kantari  
 Asko ikasi dugu  
 Agur Monikari  
 Kirol asko egiten  
 Agur Juan Mariri  
 Ez dugu inoiz ahatuko  
 Agur Lateorrori

Lateorrokoak gara  
 Txikitatik hemen  
 Bihurritxoak ginen  
 Joan gara handitzen  
 Momentu onak pasa  
 Eskolan bizitzen  
 Institutura goaz  
 Agurrak ematen



### Laudio Ikastola—Laudio 5.A

Laudiokoak gara gu  
Ikastolakoak  
Ikasi nahi baduzu  
Gu gara galantak  
Unairekin batera  
Egiten bertsoak  
Etorri nahi baduzu  
Ekarri lagunak

Laudio ikastola da  
Gure ikastola bai  
Ta ikasten badugu  
Beti gaude alai  
Beti jolasten dugu  
Lagunekin lasai  
Oso ondo gaude gu  
Guztiok oso guai

Gu Laudiokoak gara  
10 urtekoak  
Bertsolari onak ta  
Munduko onenak  
Laudio ikastolan bai  
Ikasle galantak  
Horregatik dakigu  
Egiten bertsoak

Gu Laudiokoak gara  
Jende bikaina bai  
Eta gure ikastola  
Bai dela oso guai  
Baina txarrena dugu  
Ez gaudela lasai  
Egon beharko ginen  
Betirako alai

Laudioko ikastola  
Hoberena hemen  
Eta denok batera  
Bagaude dantzatzen  
23 gara  
Zarata egiten  
Eta irakasleek  
Ez dute aguantatzen

Gu Laudiokoak gara  
Ikastolakoak  
5. mailakoak  
Beti jatorrenak  
Gu gara 'A' klasea  
Ikasle onenak  
Nota onenak dira  
Gure lagunena





### Laudio Ikastola—Laudio 5.B

Laudioko ikastolan  
Egiten dugu lan  
5. mailakoak  
Gaude ikastolan  
Ikasle jatorrenak  
Unairekin gelan  
Eta klasetik goaz  
Bai arratsaldean

Gure Laudio ikastola  
Beti da trebea  
Eta gure taldea  
Oraindik hobea  
Gustatzen zaigu dantza  
Eta jolastea  
Baita ere futbolar  
Ondo pasatzea

Laudio ikastolakoak  
Jolas futbolera  
Esplanada handian  
Asko jolastera  
Ikastola ta gero  
Bagoaz etxera  
Eta gure etxean  
Dutxan bainatzera

Gu Laudiokoak gara  
Oso bihurriak  
Baina ikasketetan  
Gu bai hoberenak  
Ondo portatzen gara  
Hemengo umeak  
Eta gure ikastolan  
Primeran guztiak

Laudio ikastolan gaude  
Bertsoak asmatzen  
Ondo pasatzen dugu  
Bertsoak abesten  
Unai bikaina da bai  
Klaseak ematen  
Ta oso azkarra da  
Bertsoak egiten



### Laudio Ikastola—Laudio 6.A

Euskal Herrian gaude  
Laudio ikastolan  
Gu ikasleak gara  
Eta beti gelan  
Herritxo txikia da  
Polita benetan  
Lagun asko ditugu  
Barrezka kalean

Gu Laudioakoak gara  
Herririk onena  
Burutik jota gaude  
Hau ez da problema  
Beti barrezka gaude  
Hori da garena  
Asko ikasi behar  
Hori da txarrena

Kaixo koadrilakoak  
Hemen ikasgelan  
Bihurrikeri asko  
Ta denborapasan  
Bronka dugu klasean  
Ta gero etxean  
Baina ez zaigu inporta  
Gu beti parrandan

Kaixo gu Laudioarrak  
Bai beti bezela  
Ikastolan bertsoak  
Abesten horrela  
Irudimena martxan  
Eskuan papela  
Hau amaitu ta gero  
Klasean txanela

Laudio hoberena da  
Araban onenak  
Ikastola denetan  
Gu gara lehenak  
Futboleko jolasten  
Gara hoberenak  
Partidua ta gero  
Piztinara denak



### Laudio Ikastola—Laudio 6.B

Kaixo denoi gu gara  
Laudioko ikasleak  
6. mailan gaude  
Gu gara hoberenak  
12 urte ditugu  
Gara azkarrenak  
Bihurriak gara gu  
Eta guapoena

Gu Laudiokoak gara  
Herririk onena  
Laudioko ikastolan  
Maila altuena  
Bertsoak abesteko  
Ahots politena  
Etxeko lanak dira  
guretzat kondena

Kaixo lagunak zelan?  
Gu oso ondo bai  
Laudion bizi gara gu  
Pozik eta alai  
Seigarren mailan gaude  
Denok oso lasai  
Bertso asko egiten  
Guretzat oso guai

Laudio ikastolan gaude  
6. kurtsoan  
Andereñorik Gabe  
Hobeto kalean  
Etxeko lanak Gabe  
Gu ondo etxean  
Kontrolatan gu gaude  
Guztiok hizketan

Laudioko ikastolan  
Bertsoak abesten  
Ez dugu nahi ikasi  
Hobeto dantzatzen  
Maite dugu euskara  
Beti gaude egiten  
Gustoko dugu hondartza  
Goaz surfatzen



### **Etxaurren ikastola - Arespaldiza 5. eta 6. mailak**

Agate deuna dugu Zuhatzan  
Ospatzen dugu abesten  
Beti alaitzen dugu jendea  
Goxoki goxoak jaten

Hemen Etxaurreneko taldea  
Oso ondo pasatzeko  
Makilarekin ondo pasatzen  
Gure bertsoa aurkezteko

Altzaidun eguna da Zuhatzan  
Alaitzen makilarekin  
Parte hartuz goxokiak jaten  
Irribar handi batekin

Hemen gaude barre egiteko  
Zuhatza polit honetan  
Karamelu goxoak jateko  
Zuhatzako kaleetan

BERDEAK



### **Etxaurren ikastola - Arespaldiza 5. eta 6. mailak**

Agate deuna ospatzen gaude  
Ikastolako umeak  
Ibilbidea egiten dugu  
Txikiak eta handiak

Makilak hartu ditugu eta  
Denok gaude oso alai  
Gure bertsoak abesten gaude  
Denok batera oso guai

Baserritarrez jantzita goaz  
Denok poz pozik abesten  
Hirugarren ziklokoak gara  
Ibilbidea bukatzen

Etxaurreneko ikasleak gara  
Gure bertsoak kantatzen  
Makilarekin lurrean jotzen  
Ta karameluak jaten

**HORIAK**



### Lucas Rey ikastetxea - Amurrio 5.A

Amurriokoak gara  
Guztiok lagunak  
5. mailakoak  
Lucas Rey onenak  
Tomas irakaslea  
Haren ikasleak  
Etxeko lanak gutxi  
Ere azterketak

Etxetik irten gara  
Bagoaz klasera  
Bazkaldu eta gero  
Berriz idaztera  
Futbolean jolasten  
Ura edatera  
Etxera bueltatzean  
Plazan jolastera

Lucas Rey eskolako  
5. A hemen  
Beti bertsolaritzan  
Eskolan kantatzen  
Jolastokian gaude  
Jolasak egiten  
Tomasekin batera  
Guztiok jolasten

5. mailakoak  
Beti jatorrenak  
Beti poz pozik gaude  
Munduko onenak  
Eskolan ari gara  
Abesten bertsoak  
Futbolean jolasten  
Gara azkarrenak



### Lucas Rey ikastetxea - Amurrio 5.B

Euskal herrikoak gara  
Onenak gara bai  
Ondo pasatzen dugu  
Pozik eta alai  
Bitartekari gara  
Pasatzen dugu guai  
5. B klasean  
Egiten dugu jai

Hau da gure herria  
Amurrio izena  
Lucas Rey eskolako  
Talderik onena  
5. B gu gara  
Klase politena  
Bertsolaritza egiten  
Ordu alaiena

Amurrioko herria  
Ume askorekin  
Bertsotan ari gara  
Gure lagunekin  
Ta eskolan ikasten  
Gure lagunekin  
Gu oso pozik gaude  
Gure eskolarekin

Gure talde onena  
Gu beti jolasten  
Lucas Rey-ko lagunak  
Beti ondo pasatzen  
Gure andereño Mamen  
Beti irakasten  
Oso andereño ona  
Gu beti ikasten



### Lucas Rey ikastetxea - Amurrio 6. A

Kaixo lagunok Irlandan gaude  
Ipotxekin bai jolasten  
Galtzerdi luze eta koloretsu  
Jendea dago erosten  
Mutil lagunak eta gizonak  
Bibote arraroak janzten  
Lau hostotako trebol berdeak  
Hemen bagaude gu hartzen  
Gu hara ez gara bueltatuko  
Geldituko gara hemen

Kaixo lagunok Antartidara  
etorri gara gu aurten  
elurrekin jolasten gaude  
hotz handia dago hemen  
pinguino batzuk lapurrak dira  
galtzontziloak lapurtzen  
laku izotzak ere badaude  
eta gaude patinatzen  
ta hartz polarrak ere badaude  
jendeari ikaritzen

kaixo lagunok Egipton gaude  
piramideak ikusten  
Nilo ibaia hemen alboan  
janari goxoa jaten  
Itsaso gorria ere badago  
Palmondoak begiratzen  
Faraoi batzuk ikusten gaude  
Gameluetan igotzen  
Hondartz politikak ere badaude  
Desertuetan ibiltzen

Kaixo lagunak Venecian gaude  
Gure oporrak pasatzen  
Guztia urez Beteta dago  
Itsasontziz nabigatzen  
Austria ere ondoan dugu  
Inauteriak ospatzen  
Pizza goxoak jaten ditugu  
Asko asko dibertitzen  
Mediterraneo Itsaso hontan  
Arraintxo asko ikusten





### Lucas Rey ikastetxea - Amurrio 6. B

Jaialdia etortzen da  
Kakarroa ere bai  
Bertsoekin batera  
Pozik eta alai  
Seigarreneko mailan  
Ospatzen dugu jai  
Umekin batera  
Pasatzen dugu guai

Inauteriak datoz  
Kolorez beteak  
Kakarro eta Markitos  
Mielotxin lagunak  
Oso ondo pasatzeko  
Bagatuz guztiak  
Mozorrotuta denok  
Bagaude alaiak

Inauteri eguna  
Mozorro eguna  
Bultzatzeko jendea  
Ta etorkizuna  
Denok abesten gaude  
Kanta euskalduna  
Herri polita dugu  
Etorri laguna

Mielotxin gizona  
Pertsonai handia  
Kakarro ta Markitos  
Bikote bitxia  
Inauterietan bai  
Dena pozgarria  
Primeran pasatzeko  
Dugu jaialdia



### Zabaleko ikastetxea - Amurrio 5. eta 6. mailak

Seigarren mailakoak  
Bosgarren ere bai  
Zabalekon guztiok  
Gaude oso alai  
Ondo pasatzen dugu  
Egiten dugu jai  
Elkarrekin jolasten  
Eskolan oso guai

Kaixo nola zaudete  
Gara euskaldunak  
Ta Zabalekon gaude  
Neska ta mutilak  
Ondo gaude klasean  
Benetan guztiak  
Eta arbelan lanak  
Badira errezak

Kaixo talde bat gara  
Amurriokoak bai  
Zabaleko eskolan  
Eta beti lasai  
Eskola onena da  
Ta beti dago jai  
Dorleta irakaslea  
Beti dago alai



### Virgen Niña ikastetxea - Amurrio LH 5. maila

Virgen Niña eskola  
Aldama kalean  
Ikasten dugu bertan  
Bosgarren mailan  
Munduko hoberenak  
Amurrioko eskolan  
Gure taldean gaude  
Beti ikasgelan

Amurriokoak gara  
Betiko lagunak  
Virgen Niña eskolan  
Ikasten dugunak  
10 urteko umeak  
Ta oso alaiak  
Futbolekoak eta  
Saskibaloikoak

Amurriokoak gara  
10 urtekoak  
25 klasean  
Virgen Niñakoak  
Bertsoa maite dugu  
Gu gara txintxoak  
Beti ikasten ditugu  
Bidalitakoak

Amurriokoak gara  
Ta bertsolariak  
Euskadiko errimak  
Amurrikoentzat  
Bertsoak egitea  
Dira gure asmoak  
Betirako errimak  
Dira guztientzat

Amurriokoak gara  
Ta bosgarren mailan  
Virgen Niña eskolan  
Monjinen etxean  
25 ikasle  
Bagaude klasean  
Korrika hasten gara  
Txirrina jotzean



### Virgen Niña ikastetxea - Amurrio LH 6. maila

Araban bizi gara  
Amurrio herrian  
Virgen Niña eskolan  
Txandala eraman  
Zapatila zuriak  
Bai ostiraletan  
Azken eguna da gaur  
Gaudela eskolan

Amurrion Virgen Niña  
Eskolan ikasten  
Unai irakaslea  
Klaseak ematen  
Beti ibiltzen gara  
Bertsoak egiten  
Ostiral guztietan  
Bertsoak abesten

Amurrikoak gara  
Virgen Niña eskolan  
Ondo pasatzen dugu  
Bertsotan lanean  
Unai haserretzen da  
Guri erronka eman  
Kopiatu ta kopiatu  
Tontoa egitean

20 gara klasean  
Talderik onena  
Virgen Niña eskola  
Guztiena dena  
6. mailakoa  
Klase jatorrena  
Opor gutxi ditugu  
Hau pena handiena

Virgen Niña eskolan  
Ikasten dugu bai  
Etxeko lan gehiegi  
Ez gaude hain alai  
Kontrolak egitea  
Hori ez dugu nahi  
Oso txintxoak gara  
Baina ez gaude lasai



### Aresketa ikastola - Amurrio 6. A

Lapurreketan geunden  
Logelak banatzen  
Gero aretoan bai  
Guztiok jolasten

Gure monitorea  
Iraide deitzen zen  
Bazkaldu eta gero  
Mendira joan ginen

Andereño ederrak  
Sukaldean jaten  
Animali politak  
Menditik ibiltzen


Lapurreketan beti  
Iraide onena  
Bigarren egunean  
Mendian barrena

Gauean hitz egiten  
Istoriak kontatzen  
Guztiak beldurtuta  
Soinuak entzuten

Mutilen logeletan  
Ondo bai pasatzen  
Ezin lo egin  
Gaupasa egiten

Gu menditik ibiltzen  
Ardiak hor jaten  
Poz pozik joaten ginen  
Kanta bat abesten

Mendian ibiltzeaz  
Nekatuta gaude  
Zauriz Beteta baina  
Minik hartu Gabe



### Aresketa ikastola - Amurrio 6. B

Aresketa ikastolan  
Guk dugu ikasten  
Neskak eta mutilak  
Koadrila osatzen  
Beti barrezka gaude  
Haserre egon arren  
Janaria batzutan  
Ez zaigu gustatzen

Irakasleei beti  
Burua berotzen  
Gero pasilloetan  
Gaude dibertitzen  
Gero arratsaldean  
Etxera joaten  
Parkera lagunekin  
Lokatzez betetzen

Ikastetxe honetan  
Gu 6. Mailan  
Pelikulak ikusten  
Azken egunean  
Patioan jolasten  
Denok aresjain  
Aurpegia margotzen  
Guztiok kalem

Ikastolan ikasten  
Lagun guztiekin  
Ta beti hitz egiten  
Bagaude bronkekin  
Froga egiten dugu  
Gero festa egin  
Etxera joaten gara  
Gu beti lanekin



### Aresketa ikastola - Amurrio 1. DBH- A

Kaixo lagunak hemen gu gaude  
Aresketa Ikastolan  
DBH-eko lehen mailako  
ikasleak hemen gelan  
Ostiralero Piña koadrila  
elkartzen gara parkean  
Beno bagoaz denok etxera  
barrezka eta korrikan

Txikia data 20 ikasle  
bihurri sartzen dira hemen  
beheko ikasleak kokoteraino  
egon beharko du aurten  
kexati hutsak ba gara eta  
maniekin nola gauden  
klasean gaude beti jolasten  
ta bultzakadak ematen  
agur laguna agurtzen zaitut  
bertso polit hau kantatzen

Kaixo koadrila, Amurrion gaude  
Aresketa ikastolan  
Hogei pertsona klase bakoitzean  
Bakoitza bere lekuan  
Hamar t'erditan Errekreora  
saltoka eta korrikan  
Arratsaldeko lau t'erdietan  
Agur bagaude etxean

Kaixo lagunak gu hemen gaude  
hoberenak garelako  
gure bertsoak oso politak  
zuei erakusteko  
Patioan gaude Enekorekin  
liante handia delako  
Eskerrik asko Eneko Guerra  
hoberena zarelako



### Aresketa ikastola - Amurrio 1. DBH—B

Aresketa bai beti bezala  
Da Ikastola onena  
Bio ta mate giza ta gazte  
Errekreo gustukoena  
Azterketekin hasiko gara  
Hori bai dela problema  
Ta aresjaia iritsi eta  
Hau kurtsoaren azkena

Gure klasean neska mutilak  
Oso jatorrak gara gu  
Ondo pasatzen ta dibertitzen  
Daramagu hiru ordu  
Mate ta gazte gero patiora  
Guztiok daukagu buru  
Gure klasea hoberena da  
Ta asko ikasten dugu

Ama begira zazu leihotik  
Zein munduan bizi garen  
Zezen plazetan zezenak hiltzen  
Gelditu zaitezte arren  
Aita Indonesian ama Kroazian  
Kondena osoa betetzen  
Aitona gaixo eta etxera  
Dabil etortzen saiatzen

Kaixo koadrila klasean geunden  
Aurreko tontoak ikusten  
Bertsoa egiten utzi ziguten  
Batzuk pasilloan zeuden  
Errekreoan partidu on bat  
Mutilek galdu egin zuten  
Hurrengo astean neskek jolastu  
Beti bezala irabazten





## Zaraobe institutua - Amurrio 2. D

Hemen gaude gu Zaraobe eskolan  
Etxeko lanak betetzen  
Irakasleak beti oihuka  
Ta ikasleak pasatzen  
Irakasleak txapa ematen  
Ta ikasleak aspertzen  
Gu hemen gaude ondo pasatzen  
Fran-ekin barre egiten

Kaixo lagunak klasean gaude  
Gara klaseko alkate  
Alferkeritan ordu luzeak  
Erraz pasatu daitezke  
Irakasleen bronkak entzuten  
Gaude besteetaz aparte  
Gero penkatu ta bronka jaso  
Bukatu ta ikusi arte

Aupa lagunak klasean gaude  
Bigarren D-ko ikasleak  
Zintzoak gara eta majuak  
Eta ere oso alaiak  
Gure klasea hoberena da  
Baita ere gure lanak  
Giro onean egoten dira  
Klasean ikaskideak

2 D klaseko klasea gara  
Beti zarata egiten  
Denok bagaude patio orduan  
Elkarrekin ta jolasten  
Binaka gaude klase barruan  
Lasai ta asko ikasten  
Bertsolaritzan poz pozik gaude  
Bertso berriak kantatzen

Zaraobera heldu orduko  
Aurpegietan tristura  
Irakaslea atetik sartu  
Hauxe da desastre hura  
Asteleheneko lehenengo ordutik  
Badaukagu guk logura  
Kurtso osoan gaude pentsatzen  
Ea noiz heltzen den uda



### Zaraobe institutua - Amurrio 2. E

Kaixo koadrila Amurrian gaude  
Zaraobe institutuan  
Ondo pasatzen beti parrandan  
Beti gaude komunetan  
Irakaslea badator eta  
Klasera arineketan  
Gero herrira jaisten gara gu  
Jantokiko patioetan  
Gero etxera parterik Gabe  
Igota autobusean

Kaixo lagunak klasean gaude  
Bertsolaritzan aritzen  
Beste klasea patioan dago  
Tontoarena egiten  
Bertsolaritza bukatu eta  
Berriro ere ikasten  
Azken orduan tailerra dago  
Gauza berriak asmatzen  
Gero etxera bagoaz denok  
Gure bertsoak abesten

Kaixo koadrila klasean gaude  
Ikasgai asko ikasten  
Etxeko lanak gehiegi dira  
Patio orduan jolasten  
Patio orduan natura dugu  
Oso ondo pasatzen hemen  
Rosa andereño oso jatorra  
Gurekin barre egiten  
Azken orduan autobusera  
Musika ona entzuten

Bigarren E-ko klasean gaude  
Etxeko lanak egiten  
Institutuan gaude guztiok  
Amaren erruz ikasten  
Koldorengana beti presaka  
Babarrunak denok jaten  
Gero guztiok beti barrezka  
Jolastokian jolasten  
Kurtsoa amaitu baino lehenago  
Penkoak berreskuratzen



## Zaraobe institutua - Amurrio 2. F

Klaseko ordua ia amaitu da  
Txirrinak laster Joko du  
Gaur alfertuta ibili gara  
Oso lan gutxi egin dugu  
Patiora pozik irtengo gara  
Bokatak jango ditugu  
Arratsaldean etxera goaz  
Zelako presa daukagu

Kaixo lagunak hementxe gaude  
Pelikula bat ikusten  
Hajar Jugatxi Joane ta ni  
Goxoki goxoak jaten  
Bolumena jaitsi beharko dugu  
Auzokideak kexatzen  
Festa bukatu beharko dugu  
Hurrengo eguna prestatzen

Neskak ere futbolean  
Aritzen gara hemen  
Taldea bat osatzeko  
Dirua aurrezten  
Ana entrenatzaile  
Taldea prestatzen  
Andrea da pitxitxi  
Onena jolasten

Klaseko lan guztia  
Bidali digute  
Etxean egiteko  
Zorabiatu arte  
Klaseko azkarrenek  
Eginda dituzte  
Baina beste batzuek  
Bururik ez dute



### Zaraobe institutua - Amurrio 2. G

Hemengo klasekoak  
Bigarren G-koak  
Neskak eta mutilak  
Gara basatiak  
Gimnasiako orduan  
Gara tximinoak  
Ostirala heltzean  
Hasten dira oihuak

Zaraobekoak bai  
Gara hoberenak  
Asko ikasten dugu  
Ta etxeko-lanak  
Alferrak ere gara  
Ta negatiboak  
Bidaltzen dizkigute  
Beti lan mordoak

Bertsolaritzan gaude  
Bertsoak egiten  
Klaseko kideekin  
Oso ondo pasatzen  
Unairekin ikasten  
Ta bertsoak lantzen  
lagunekin batera  
barrezka ikasten



### Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega LH 5. maila

Gure herriko izena  
Artziniega da bai  
Eta oso polita  
Beti gaude alai  
Gure klaseko denak  
Beti gaude lasai  
Txirrina jo ta gero  
Egiten dugu jai

Artziniega guretzat  
Herri politena  
Arteko gure ama  
Hemen jatorrena  
Euskara da guretzat  
Inportanteena  
Lagunekin jolastu  
Hori da onena

Artziniegakoak gara  
Ta oso txintxoak  
Unairekin ikasten  
Benetan guapoak  
Bertsolaritza ikasten  
Egiten bertsoak  
Batzuetan oso txintxo  
Besteetan gaiztoak



### Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega LH 6. maila

Arteko gure aman  
Bagaude ikasten  
Patio handia dugu  
Bai guri gustatzen  
Ikastea aspergarri  
Klasean aspertzen  
Oso txarto portatzen  
Euskaraz egiten

Artziniega eskolan  
Lan egiten dugu  
Aspergarria da bai  
Hori da seguru  
Gustura egoten gara  
Portatilekin gu  
Gure herrian lagun  
Asko baditugu

12 urte ditugu  
Bakoitzak guztira  
Lanak aspergarriak  
Eta asko dira  
Hemen gure eskolan  
Izarrek distira  
Asko egoten gara  
Patioan begira

12 urte ditugu  
Oso lagun onak  
Lan asko egiten dugu  
Lan aspergarriak  
Lehio ondoan daude  
Mateko jolasak  
Gelak handiak eta  
Patioan zuhaitzak

Artziniegan gaude gu  
Primeran pasatzen  
Eta klase barruan  
Gaude lan egiten  
Denbora ondo pasa  
Eta gaiak lantzen  
Klase luzeak dira  
Ta asko aspertzen



### Urduña Herri Eskola - Urduña 5. maila

Otxomaio festak  
Baditugu bertan  
Barraketara goaz  
Guztiok goizean  
Musika eta dantza  
Badaude kalean  
Bihotza erretzen da  
Udaletxe aurrean

Maiatzaren 7an  
Jaiak dira hasten  
Buruhandiak datoz  
Gu guztiok jotzen  
Azkeneko egunean  
Guztiok erretzen  
Petardoak erosi  
Zarata egiten

Otxomaio badator  
Urduñako jaiak  
Lagunak elkarrekin  
Ordaintzen barrakak  
Gauetz egoten dira  
Enparantzan dantzak  
Munduko politenak  
Urduñako festak

Maiatzaren 8an  
Otxomaioak bai  
Elkarrekin jolasten  
Dibertitzen alai  
Dantzak eta jolasak  
Prestatzen dira guai  
Urduñako jaietan  
Denok egiten jai



### Urduña Herri Eskola - Urduña 6. maila

Euskara da guretzat  
Inportantea bai  
Dantza egingo dugu  
Denok oso alai  
Urduñako eskolan  
Egiten dugu jai  
Euskaraz jolastean  
Pasatzen dugu guai

Urduñako hizkuntza  
Euskara barnean  
Ondo pasatzen dugu  
Denok mintzatzean  
Ipin behar dugu  
Gure mingainean  
Guztiok egiteko  
Etorkizunean

Euskararen eguna  
Bagaude ospatzen  
Gure eskolakoekin  
Bertsoak abesten  
Urdintxurekin denok  
Euskaraz mintzatzen  
Ondo pasatzen dugu  
Euskaraz jolasten

Euskararen eguna  
Bagaude ospatzen  
Bertsorik politenak  
Bagaude abesten  
Denok ondo pasatzen  
Eta dibertitzen  
Gure hizkuntza maitea  
Gaude defendatzen





### Antzinako Gure Ama - Urduña 5. maila

Urduñan bizi gara  
Bertsoak egiten  
Ondo pasatzen dugu  
Kalean jolastean  
Euskaraz mintzatzeko  
Arkatzak mugitzen  
Patoria joaten gara  
Primeran pasatzen

Urduñakoak gara  
Gustura bizitzen  
Txefos eskolan gaude  
Primeran pasatzen  
24 klasean  
Zarata egiten  
Hamar urte ditugu  
Klasean jolasten

Urduñan bizi gara  
Herri politena  
Mendizerra igota  
Dago hoberena  
Eskola handia da  
Eta ederrena  
Ikasle asko ditu  
Ez da zaharrena

Batzuk Urduñakoak  
Besteak herrian  
Beti egiten dugu  
Bertsoak erriman  
Gure irakasleak  
Ikasten etxean  
Guretzat lan guztia  
Badago soberan

Urduñakoak gara  
Mendira joaten  
Eta gure lagunak  
Gurekin etortzen  
Maiatzaren 8an  
Kanta ta dantzatzen  
Klasea amaitzean  
Kalera ateratzen

Urduñakoak gara  
Birjinara igotzen  
Denok lagunak gara  
Patioan jolasten  
Hamar urte ditugu  
Bertsoak abesten  
Lagunekin jolastu  
eta dibertitzen



### Antzinako Gure Ama - Urduña 6.A

Urduñakoak gara  
Euskara ikasten  
Bikain pasatzen dugu  
Besteekin jolasten  
Plazan egoten gara  
Guztiok dantzatzen  
Ondo pasatzen dugu  
Petardoak botatzen

Urduñan jende asko  
Foru plazan festa  
Barraketan ibiltzen  
Ez daukagu kezka  
Oso ondo pasatzen  
Mutil eta neska  
Buruhandiak jotzen  
Gu beti barrezka

Urduñakoak gara  
Bertsoak abesten  
Ondo pasatzen dugu  
Askotan dantzatzen  
Otxomaio jaietan  
Playback-a kantatzen  
Jamaikara bagoaz  
'ola' bat egiten

Orain klasean gaude  
Bertsoak idazten  
Ta oso pozik gaude  
Launaka pentsatzen  
Dena ikusten dugu  
Idea ateratzen  
Bukatzen ari gara  
Oso ondo pasatzen



### Antzinako Gure Ama - Urduña 6.B

Gure klaseko neskak  
Mutilekin alai  
Beti jolasten daude  
Hori bai dela guai  
Gure klasean gaude  
Beti oso lasai  
Ahal baldin badugu  
Egiten dugu jai

Gure klasean gaude  
Oso aspertuta  
Eta andereñoak  
Gutaz nekatuta  
Otxomaiotan gaude  
Guztiok poztuta  
Eta egun hauetan  
Guztiok oihuka

Seigarren B-ko neskak  
Hoberenak gara  
Unairekin batera  
Bertso egitera  
Otxomaioak dira  
Denok dantzatzera  
Eta denok batera  
Ondo pasatzera

Eskualdeko bertso-eskolak  
2015-2016 ikasturtea



AIARA ESKUALDEKO BERTSO-ESKOLA "AIEBE"

Amurrioko bertso eskola  
Amurrioko Kultur Etxea  
Juan De Urrutia Enparantza z/g  
01470 AMURRIO

Laudioko bertso eskola  
Laudioko Kultur Etxea  
Lamuza parkea, 13  
01400 LAUDIO

Unai Menbidil - Asier Rubio  
Telefonoa: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)  
e-posta: trunkatun@hotmail.com

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA  
AMAIA ZENTROA  
Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ  
Tel: 945010505 fax: 945288275  
e-posta: araba@bertsozale.eus  
[www.bertsozale.eus/araba](http://www.bertsozale.eus/araba)  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

